

scheifler-i erantzunez

tomás borge ala napoleón duarte? bi aukera

José Ramón Scheifler-ek ez dau aipatu, eta ez dit ezer galdetu; baina erantzun beharrean nabari dut neure burua. Inolako garraztasunik gabe egin nahi dut.

Azken irailaren 29an, S. Migel egunean, "Deia"ko orrialde oso bat idatzi du berak, titulu honekin: "Sandinismo nicaragüense, ETA-HB y teología". Nik ulertu dudanez, bi artikulua ezberdin daude baruan, autoreak nolabait lotu dituenak, bata bestearen ondoren jarritu eta titulu bakarraren pean ipinitu. Ondo asmatuta, irakurleak deitzeko, baina bai eta nahasteko ere.

"Bigarren artikuluar" helduko diot nik: "Sandinismo y teología" izenekoari. Autoreak lotu nahi dituen "bi artikulua" ondo bereizteko, arrazoi bakarra baina, nere ustez, erabatekoa, emango dut: berak aipatzen duen teologia kongresuan gutzit bereizi direla —nere eritziz, gehiegi— Nicaraguako iraultza eta ETArek burruka hartuta. Kongresua dela eta, biak nahastea ez zait leiala behintzat iruditzen.

Madrilen egin berria den (irailak 19-25) "Cristianos y paz" izeneko Kongresuan lehen egunetik azkenera hartu dut parte. Horrengatik nabari dut erantzun beharrean neure burua. Scheifler adiskidea, berriz, ez dut han ikusi. Ez dakit egunen batean han izan den ala ez. Kongresuari buruzko bere informazioa prentsatik edota, gehienik ere, han izandakoren baten ahotatik jasoa duela esango nuke. Dena dela, ez dut uste teologi kongresuaren barruko dinamika inondik ere ulertu duenik.

Ez nator ni orain "Cristianos y paz" Kongresuaren apologia egitera; ba du neure eritzia horretaz, eta ez da oso aldekoa. Beste nonbait luzeago agertuko dut neure kritika. Ez dut Tomás Borge-ren hitzaldia goraiapatuko ere, entzuleen aldetik txalo handiak lortu zituen arren. Haren ihardunak eta inguruak mitin erlijiozko-politikoaren kutsu handiegia eduki zuen, nere ustez; eta, gainera, bere hitzaldia berorearen ondoren, alde egin zigun, entzuleen galderei erantzuteko eginkizuna bere laguntzaileei utzi.

Kongresuko teologoei eta Scheifler-ek aukera bana

Sandinismoaren aldeko sutsutzat jotzen ditu Scheifler-ek "Juan XXIII" izeneko elkarteko teologoak. Baliteke! Beren aukera dute. Zalantzarik ez dut, Madrilgo kon-

gresuan nahiko garbi zegoela gehienentzat, Nicaraguako iraultzaren aldeko aukera politikoa eta soziala. Baina kongresuko teologoen eta beste partehartzaileen aurretik, kristau askok egin du Nicaraguako iraultza sandinistaren aukera.

Sandinino eta Sandinistentzat urrutiko gauzak direla teologia eta kristautasunari dagokion edozer? Eritzi ezberdinak eduki genitzaite horretaz. Argi dagoena, ordea, zera da: Hainbat kristaurentzat ez direla urrutiko eta axolagabeko gauzak sandinismoa eta horien iraultza. Sandinistekin batera murgildu dira kristau asko, iraultza egiteko eta defenditzeko. Hortxe egin dute beren aukera kristau fededun eta elkarte askok. Baina Nicaraguako ez dute horiek bakarrik egin beren aukera; beren aukera egin dute —aukera politiko-soziala— iraultzaren kontrako ere; denok dakigu horien artean ba daudela kristauak ere. Ezer nabarmenik badago, ordea, azken urteotako munduko buruketan, hauxe da: kristau fededunek izan duten eta orain ere duten parte Nicaraguako iraultza sandinistan.

Fede beretik bi aukera ezberdin. Aukera bakoitzak daramatza kristautak, ez bakarrik era batera ala bestera beren kristau fede aitorzera eta beren bizitza eratzera; eta bai beren gogate teologikoa egitera ere. Bi teologia daude Nicaraguako une honetan, iraultzaren esperientziaren barrutik egiten ari dena, eta kanpotik nahiz horren kontrako aukeratik egiten ari dena.

Scheifler-ek, berriz, teologia neutrala eskatzen die nonbait Madrilgo Kongresuko teologoei eta kristauei. Teologia neutrala ez duela egin, salatzen dio kongresuari. Baina... horixe ez zuen horriek nahi, hain zuzen ere. Delako neutraltasun horretan kontra agertu dira kongresuan hizlari eta partehartzaile asko. Horiek jabeturik daude, aukera bat egina dutela; beren ustez, beren kristau fedeari dariona: ez pobreen, zapalduen eta baztertuen aldeko aukera abstrakta bakoik, eta bai horiek askatze bide eta burruka konkretu baten aldeko aukera konkretua ere.

Zera gertatzen da, ordea: Kongresuko teologiek bezala, J.R. Scheifler-ek ere bere aukera egina duela, sozio-politiko eta konkretua, bere federa konkretu nahian seguruena. Eta aukera horren araberako teologia egiten duela. Baina



ez du aitortu nahi. Delako neutraltasunaren babesean gorde nahi luke bere teologia. Baina itxura hutsa da.

Denok jabetuko bagina, gure "fedeko aukerak" baldintzatuak direla, eta horiek baldintzatzen dituzte gure gogate teologikoa, errazago izango genuke seguruena elkar ulertzea.

Borge ala Duarte?

Aditza eraman duenez, Tomás Borge, Nicaraguako barne ministroaren orde, Napoleón Duarte, El Salvador-eko Kristau Demokraziaren buruzagia, ikusi nahiko zukeen Scheifler-ek Madrilgo kongresuan. Honek, ordea, ez du kristau aukera ezberdinen printzipiozko zilegizkotasuna ukatu, Tomás Borge deitzen eta ez Napoleón Duarte. Aukeratu egin du. Seguruena, Borge-ren iraultza sandinista, Duarteren kristau demokrazia baino hurbilagoa eta kideagoa iruditzen zaiolako, Ebanjelioarekiko eta kristau fedearerikoa.

Izan ere, denok dakigu, Napoleón Duartek, kristau demokraziaren izenean, El Salvador-eko oligarkiarren gobernuaren sostengatzaile duela; Tomás Borge, FSLNeko buruetako izanik, Nicaraguako gobernu iraultzaileko ministraria da. Batari nahiz besteari ez diegu hemen bestelako kalifikaziorik emango; Scheifler eta biok, irakurleak bezala, ez ginateke seguruena bat etorriko bi gobernuak kalifikatzen. Gure autoreak, ordea, bere aldetik ezarriak dizkie bere epiteoak, Nicaraguakoari: marxista, militarista, diktatorial.



Argi dago; aukera egina du Scheifler-ek: Kristau Demokraziaren aldekoa (EAJrena izan, Napoleón Duarterena nahiz Eduardo Frei-rena, garai hartan Pinochet-en kolpe militarra eta diktadura bedekintatu zituenarena).

Ez diot, ez, Scheifler-i bere aukera ideologikoa, soziala eta politikoa egiteko eskubidea ukatuko. Baina ez dut uste berak ere Kongresuko teologoei ukatu beharko liekeenik, Nicaraguako iraultzaren aldeko aukera egiteko eskubidea. Kristau fedetik baldin bada, bakoitzak ikusiko du —kritikoki ikusi beharko du— zein den Ebanjelioarekin kidekoena edo hurbilena.

Kritika teologikoa fedezko aukeratik

Pazifismoa eta militarismoa, biak ezkondu nahi izan dituela Madrilgo Kongresuak? Hasteok, argitu beharko genuke Nicaraguako errejimena militarismoa den ala iraultza harmatua den. Ez dira gauza bera; eta seguruena Kongresuko teologoei eta Scheifler-ek ez duten berdin ikusten. Dena dela, Kongresuaren barruan gertatu izan zitezkeen kontradikzioak —eta nere ustez, ez dira ondo gaitunditza—, baren pentsakeraren eta hizkeraren barrutik argitu eta salatu beharko zitezkeen; eta ez kanpotik ironizatzen. Bestalde, ez dut uste inolara ere Madrilgo kongresua, Europan izan diren eta diren manifestaldi pazifistekin berdintzerik dagoenik, ez hizkeraz eta pentsakeraz.

Barkatuko al dit Scheifler-ek, baina kanpotik ikusi duela uste dut Kongresua; kanpaiak entzun ditu;

ez du barrutik jarraitu. Eta kanpai horiek, berriz, betiko alderditik entzun ditu: berak salatu nahi dituen "desinformazio" eta "deformazioz" Alde batean bakarrik bilatu du informazioa; gustoko zuen horretan.

Oso ongi: teologiak kritikoa izan behar du; eta kristau fedeak edonolako gizarte eta politika modu kritikatzeko indarra izan behar du. Baina bakoitzak bere fedetik aukera sozial eta politiko bat egina duela jabeturik. Ez dago teologia neutralik, alde bateko eta horren kontrako gizarte —eta politika— sistemak kritikatu dituenik. Ez dago Txile-ko diktaduraren eta Nicaraguako iraultzaren gainetik egin daitekeen teologiarik, bien arteko barruti neutralean kokatuz edo.

"Verdadera paz" aipatuz bukatzen duzue zure artikulua. Zer da hori? Hain zuzen, Madrilgo Kongresuaren bakearen konzeptu piloa ibili da; sintesira iritsi gabe, nere ustez. Dena dela, hor ere, bakoitzak bere aukeratik ikusten du "benetako bakea", bakoitzak bere teologiatik. Fedek, berriz, ez digu benetako bake mundutararen definizioari ematen.

Bukatzeko, Nicaraguari buruzko liburua batetik (Lo que hemos visto y oído. Apuntes en la revolución de Nicaragua izenekotik) atera nahi ditut lerro batzu: "En Nicaragua puede haber religión para todo: religión para la conquista y la colonización, religión para establecer la cristiandad, religión para acumular riquezas en medio de un pueblo pobre; religión para la resistencia cultural, religión para luchar contra los invasores; religión para legitimar la dictadura y la represión como defensa de la civilización occidental cristiana, religión para luchar contra el comunismo ateo; religión para denunciar la injusticia y la represión, religión para la insurrección contra la dictadura, para la lucha armada, para la revolución".

"Y ahora estamos viendo también en Nicaragua religión para manipular al pueblo, religión para desestabilizar el proceso popular, religión para condenar a los cristianos revolucionarios, religión para provocar resistencia popular contra la revolución, e incluso para asesinar campesinos y milicianos y violar a sus mujeres".

Besterik ez. Agur.
Paulo AGIRREBALTZATEGI

colaboración

contra las calumnias de cambio 16

La Asociación de Familiares y Amigos de los Presos Políticos de Madrid (AFAPP), queremos denunciar con esta carta la serie de calumnias vertidas contra los familiares de los presos del PCE(r) y Grapo por parte del semanario "Cambio 16".

Este semanario, de cuya labor desinformativa y calumniadora ya han sufrido las consecuencias muchos antifascistas y familiares, publica en su número 617 (de 27 de setiembre al 3 de octubre) un artículo bajo el título de "Grapo: Con el alma en Vigo" en el que se vierten acusaciones tan falsas como estas:

... es por esto por lo que en la actualidad las investigaciones policiales se dirigen hacia los familiares, considerados como una de las fuentes informativas del grupo. Junto con una vigilancia más estrecha sobre los grapos, que tras haber cumplido condena, no ha-

bían vuelto a tener, aparentemente, relación alguna con la banda". (subrayados nuestros).

Por otra parte, tratan de presentar a los familiares gallegos como agentes subversivos cuya misión sería la de, aprovechando los posibles futuros conflictos de la ciudad de Vigo "infiltrarse en manifestaciones y asambleas de trabajadores y provocar enfrentamientos violentos con la policía a base de utilizar cócteles molotov y bombas de fabricación casera". (todas las citas entrecuilladas son textuales.)

Los familiares y amigos de presos políticos hemos sufrido ya en numerosas ocasiones la represión en nuestras propias carnes: hemos sido detenidos, torturados, apaleados en juicios, perseguidos por la calle, nuestros teléfonos estarán probablemente intervenidos y hemos llegado incluso a encontrar aparatos de escucha policiales en dos domicilios de familiares de presos... y todo ello por el único hecho de ser familiares o amigos de los presos políticos y por luchar por su libertad y contra la represión.

No obstante, los propios jueces han tenido siempre que ponernos en libertad sin cargos a sabiendas de que nuestra lucha es única y exclusivamente esta y de que nuestra Asociación ha llevado a cabo todos los trámites legales para su inscripción.

Parece ser que esto es lo que les molesta a los redactores de Cambio 16 y a su director (contra quienes presentaremos denuncia por vía judicial) y están inventando acusaciones para justificar nuevas detenciones y un mayor acoso policial (si cabe) contra todos vosotros.

Por ello nos vemos obligados a denunciar todo este montaje provocador advirtiendo a toda la opinión pública, de antemano, que si dentro de cuatro días aparecen varios familiares detenidos y acusados de colaborar con los GRAPo, no se llamen a engaño. Nos están "preparando la cama" pero sepan de antemano todos los ciudadanos que todo esto no es más que una gran mentira vertida contra nosotros como siempre han hecho los distintos regímenes represivos para

justificar sus acciones cuando éstas, en una lógica democrática, serían simplemente injustificables.

AFAPP de Madrid

señor inspector, ¿qué día comienza el curso?

La situación de las clases de 1º de EGB de la Escuela Pública de Zuhaitzi es la siguiente:

Los niños de una de las dos clases que hay en el centro, no han tenido andereño hasta el día 29 de setiembre, cuando, después de una tumultuosa asamblea celebrada el día 28, se decidió ir a delegación a buscarla.

Los 23 niños de la otra clase si tienen profesora desde el principio, pero el problema está en que 7 niños no entienden euskara, 11 no lo practican y 5 son euskaldunes. O sea, que están juntos los tres niveles en cuanto a idioma, A, B, y D. ¿En qué idioma debe impartir las clases esta profesora? Por una serie de motivos (falsos informes por parte de los anteriores centros

donde han estudiado los niños, falsas promesas de la escuela y del inspector en cuanto a la solución...), este problema se ha planteado con fecha 7 de octubre, siendo la única solución por parte de la escuela, el que los niños euskaldunes o estudian en castellano o no estudian en esta escuela.

Señores, seamos serios. Estos niños son euskaldunes desde que nacieron. Han estado en el preescolar de la Escuela Viteri (oficialmente su continuación es la Escuela Zuhaitzi) en el nivel D, o sea todo en euskara.

Por respeto a estos niños, quiere alguien explicarnos ¿cuándo va a comenzar el curso para nuestros hijos? Convocamos, por lo tanto, a todos los que queráis o podáis apoyarnos, a que os suméis a nosotros para conseguir, entre todos, que la Escuela Pública de Zuhaitzi tenga un nivel D para todos los niños euskaldunes de los barrios de Gros y de Eugia.

GRUPO DE PADRES DE ALUMNOS DE 1º DE EGB DE LA ESCUELA ZUHAIITZI